



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Berta Berezi**
Egileak / Autores: **Edu Zelaieta eta Txabi Arnal**
Irudigilea / Ilustrador: **Alexandre Fernández**
Saila / Colección: Auskalo, 66
ISBN / EAN: 978-84-9109-730-3
Salneurria / Precio: 9,50 €
Orri kopurua / N° páginas: 68
Formatua / Formato: Rustika / Rústico - 14 x 20,5 cm
Materia: Haur literatura - Literatura infantil
Adin gomendatua / Edad recomendada: 10-13 urte

Lana / La obra

Bi nobedade ekarri zituen lehen eskola egunak. Batetik, Garbiñe tutoreak haurdun zegoela iragarri zuen. Bestetik, haren ondoan zegoen ikaskide berria aurkeztu zuen taldearen aurrean:

—Ondoan dudan neska honek Berta izena du, eta gurekin egongo da hemendik aurrera. Ongi, etorri gure taldera, Berta! Zerbait esan nahiko zenuke beste guztiok zu ezagutzen hasteko-edo?

—Egunkarietan eta telebistan nire jaiotzaren berri eman zuten, oraindik ere amaren tripan nengoela, komunikazio sistema berri bat asmatu nuelako.

—Komunikazio sistema berri bat?

—Bai, Morse Kodea.

Morse kodea asmatzen, misterio ilunak argitzen edota lagunei teknikak irakasten espezialista da Berta. Bai eta bere sinadura bazter guztietara zabaltzen ere: BB.

Egileak / Autores

Txabik Eduk bezala eta EdukTxabik legez idatzi nahi zutelako, istorioak kontatzeko tresnak trukatzearabaki zuten. Hala, EduTxabiren boligrafoaz saiatu zen eta Txabik zirriborroz bete zuen Eduren koardernoa. Alferrik! Arratsalde batean, konponbidea topatuko zutela sinetsita, biak paseatzera irten ziren (elkarrekin, jakina!). Eta, konponbidea ez bazen ere, bai aurkitu zutela zerbait bidean: boligrafo bitxi bat. Txabik boligrafoa hartu eta Eduri eskaini zion. Eduk, orduan, esaldi bat idatzi eta Txabiri erakutsi zion. Ondoren, Txabik bigarrena idatzi zuen... Geroztik, behin baino gehiagotan egin dute. Jakin dakigunez, gainera, tinta ugari isurtzeko asmoa du adiskidetasunaren lau eskuekin hartutako boligrafo horrek.

